



TA21EKO BEHATOKIA  
OBSERVATORIO AL 21  
GIPUZKOA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

# Tolosako Udala TOKIKO AGENDA 21

## Iraunkortasunaren Tokiko Ekintza Plana 2012ko emaitzak

TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANEN  
EBALUAZIO ZERBITZUA



Dokumentu honek **udalerrri gipuzkoarretan 2012ko TA21eko Tokiko Ekintza Planaren ezarpen-mailaren ebaluazioa egiteko laguntza Zerbitzuan** udaletxe honen parte hartzetik abiatuta sortu diren emaitzak adierazten ditu.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** zerbitzu hau 2005.urteaz geroztik bultzatzen du. **Udalsarea 21eko** kide diren udalerriei zuzenduta dago zerbitzua eta Sareko udalerrri guztiek partekatzen duten metodologia komun batean oinarritzen da.

Zerbitzu honen helburua **politika publikoen eraginkortasunean** oinarritutako **Gobernantza** eredu bat lortzeko laguntza ematea da. Honekin, udalerrietako Tokiko Agendak bizi kalitate hobegoko komunitateak lortzeko, giza eta ekonomi garapen iraunkorra lortzeko eta gure inguruaren zainketa eta errespetua lortzeko instrumentu izatea nahi da.

Txosten honek zera aurkezten du:

- **Ekintza Planaren gauzatze mailaren** emaitza orokorrak.
- Planaren ezartzea bermatzen duen **Udaletxeko barne-koordinazioarako mekanismoaren** funtzionamendu eta ezaugarriak.
- Herritarren ikuspegia planean barneratzea bermatzen duen **herritarren parte-hartze mekanismoaren** funtzionamendu eta ezaugarriak

Zerbitzuaren azken argitalpen honetan Gipuzkoako 43 udalerrrik hartu dute parte 2012.urtean beraien ekintza planen gauzatzea ebaluatzen


Zerbitzuari buruzko informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/MedioAmbiente/gipuzkoaingurumena/eu/secciones/observatorio/gipuzkoakoiraunkortasunarenbehatokia.asp>

# ERABILITAKO METODOLOGIA

Planaren ezarpenaren balorazio kualitatiboa egiteko udalaz kanpoko ebaluazio talde batek **Udalsarea 21**eko udalerrietan komuna den Gida metodologikoaren arabera EKINTZA ETA URTE BAKOITZERAKO GAUZATZE EGOERA bat jartzen du,


<b>(H)</b>	Hasteko: 0
<b>(Ha)</b>	Hasita: 0,25
<b>(Au)</b>	Aurreratua: 0,50
<b>(Am)</b>	Amaitzen: 0,75
<b>(At)</b>	Amaituta: 1



**Mugi 21** Euskadin Tokiko Agenda 21 kudeatzeko diseinatu den aplikazio informatikoak ekintza bakoitzari zenbakizko balore bat esleitzen die Planean dauden ekintza guztien erlazioan eta emaitzak **ezarpen-portzentai** moduan ematen ditu.

## Inplikaturako eragileak

Ekintza Planaren gauzatzean inplikaturako politiko edota teknikari arduradunak, udaleko gaitasun traspasatuak dauzkaten udal enpresak edo eskualdeko entitateak



## Prozesuaren arduraduna (eta TA21-ena)

TA21-en prozesuaren udal arduraduna




## Ebaluatzaile taldea

Programaren esparruan GFAk izendatu duen taldea, prozesuaren ebaluaketarako ahalmen espezifikoekin. Izan ere, bere gaitasunak ebaluaketarako irizpide homogeneoak ziurtatzen ditu baita prozesuaren aplikazioa orokorrean ere.



# PLANAREN EZAUGARRIAK

Planeko ekintza kopurua: 193  
Izaera jarraia duten planeko ekintzen portzentajea: %25  
Planean parte hartzen duten eragileen kopurua: 18



GRAFIKOA: Gipuzkoako udalerrietako  
2011ko batez besteko datuak.  
ITURRIA:GFA

**Planeko ekintza kopurua: 193**  
**Izaera jarraia duten planeko ekintzen portzentajea: %25**  
**Planean parte hartzen duten eragileen kopurua: 18**

#### **PLANEKO EKINTZA KOPURUA**

**Lurraldeko batez besteko balorearekin alderatuz ekintza kopurua altuagoa** da, aldagai hau ez dago identifikatuta planaren kalitate adierazle moduan, baina bai ordea kontsideratzen da Euskadiko plan batzuk beren ezarpen bideragarritasunerako handiegiak direla eta beste batzuk aldiz, mugatuak direnez oso zail egin ditzakete joera aldaketak.



Planen berrikuspen metodologiaren arabera, 15.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan ekintza kopuru egokia 70 eta 150 artean egongo litzateke.

#### **PLANEAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN KOPURUA**

**Parte hartzen duten eragileen kopurua**, hau da, planaren ezarpenean esku hartzen duten udal-arduradunen kopurua, Lurraldeko batez besteko balorearekin alderatuz baita EAEkoekin ere, baxuago da.



# PLANAREN GAUZATZE- MAILAREN EMAITZAK



GRAFIKOA: Planen batez besteko gauzatze-mailaren bilakaera helburuarekiko.

ITURRIA:GFA

# Balorazioa

Gipuzkoa mailan urtekako batez besteko eta helburuko gauzatze-mailen baloreak gure planaren gauzatze-mailaren emaitzekin alderatuz, zera beha daiteke:



## LORTUTAKO EZARTZE-MAILA

**Planaren ezartze-maila moderatua** da, **bere 3. ezarpen urtean % 37a** lortu duelarik. Hau Udalsarea 21eko udalerrien ekintza planentzako ezarrita dauden helburu komunetatik gertu dago (%39a).



## EZARTZE MAILAREN JOERA

**Gauzatze erritmoa**, helburuko hazkundearekin konparatuta **altua** da. Kasu honetan, ebaluatutako azken urteko hazkuntza % 13a izan da.



## EZARTZE-MAILA BATEZ BESTEKO DATUEKIN ALDERATUZ

Planaren gauzatze-maila Gipuzkoako batez besteko baloreekin konparatuz, udalerriak batez bestekoarekiko gauzatze-maila zertxobait altuagoa daukala beha daiteke. 3. ezarpen urtean, udalerriak **% 39ko gauzatze-maila** lortu du eta denbora berdinean lurraldeko **udalerrien batez bestekoa % 32,5koa** da. EAEko batez besteko datuen arabera balorazioa antzekoa da.



1. Tokiko Garapen ekonomikoa eta urbanoa sustatzea, jasangarritasun eta berrikuntza irizpideetatik abiatuta

37%

2. Bizikidetzaren, justizia soziala eta berdintasuna bultzatuko dituen herri baten aldeko apustua egin

45%

3. Kultua, euskara, kirola eta aisia sustatu berrikuntza parametroetatik

38%



4. Herriko baliabide naturalak babestu, kontsumo jasangarria sustatu eta hondakin kudeaketa optimizatu

17%


5. Klima aldaketa eta berotegi efektuko gasen isuriak arintzea

38%


6. Kudeaketa eraberritzearen eta herritarren partaidetzaren aldeko Udal administrazioa izateko lan egitea

36%

0% 10% 20% 30% 40% 50% 60% 70% 80%



2011ean ekintzen gauzatze egoera



2012eko abenduan planeko ekintzen garapen-maila aztertuz zera ikus daiteke:

## Balorazioa




### LORTUTAKO EKINTZEN GARAPEN-MAILA ETA ETORIKIZUNERAKO IKUSPEGIA

Adierazgarria da ebaluatutako azken urterako, **amaituta, amaitzen eta aurreratuta dauden ekintzen batura %46** izatea, ia Ekintza Planaren erdia suposatzen duelarik. Zirkunstantzia hau eta ekintzen **%77** jada **2012an gutxienez hasita aurkitzen direla** kontutan hartuz, hurrengo urtean gutxienez azken urteko **hazkunde erritmoa mantendu ahal izango dela** aurreikusi daiteke

# **TOKIKO AGENDA 21EAN UDALAREN BARNE- KOORDINAZIOA**

2012an Laia izeneko barne koordinazio mekanismoa sortu zen Tolosan. Mekanismo honen helburu nagusia udalerriko proiektu estrategikoak modu transbertsalean lantzea da. Bertan, udal sail ezberdinen ordezkari batek parte hartzen du udalerriko proiektu estrategikoak eta eraldatzaileak bultzatzeko asmoz. Aldi berean, mekanismo honetan parte hartzen dutenak, norberaren departamenduaren parte hartzea bideratzeaz arduratzen dira, horrela barne eta kanpoko parte hartzearen arteko lotura oso aproposa lortuz.

## Gipuzkoan barne-koordinazio mekanismoaren existentzia eta kalitatea



ITURRIA:GFA

## Balorazioa




# **TOKIKO AGENDA 21EAN HERRITARREN PARTE HARTZEA**



Tolosan ez da Tokiko Agenda 21ari zuzenki lotutako foro edo parte-hartze mekanismo zehatzik existitzen. Hala ere, Laiaren sorkuntzarekin batera, herritarren parte-hartzea birplanteatu da eta udalarekiko lotura nabarmen sendotu da. Horretarako, mahai sektorial bakoitzak proposatzen eta adosten duena Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean txertatuko da.

### Gipuzkoan TA21aren gaian herritarren parte hartze mekanismoak



ITURRIA:GFA

### Balorazioa

EXISTENTZIA




DINAMISMOA



Saioetan batez beste 10 pertsona inguruk parte hartzen dute, sektorearen eta gaiaren arabera partaideen kopurua gehitu ala gutxitu egiten delarik.

Ekintza Planaren jarraipenari dagokionez, Ekintza Planaren ezarpenaren eta iraunkortasun adierazleen emaitzen jarraipena ez da egiten baina Tokiko Agenda 21aren testuinguruan garatu beharreko jardueren inguruko proposamenak jasotzen dira.

### Gipuzkoan TA21aren gaian herritarren parte hartze mekanismoak



ITURRIA:GFA

## Balorazioa

HEDADURA



PROTAGONISMOA  
PLANEAN



# PLANAREN EGUNERATZEA

Udalsarea 21eko Ekintza Plana kudeatzeko ereduak MUGI 21aren bidez **Plana EGUNERATZEA** baimentzen du. Ezarpen-mailaren ebaluaketarako burutzen den azterketatik (edo beste azterketa sistemaren bat) abiatuz egiten da eguneratzea.

Planaren eguneratzeak ez ditu Planaren filosofi orokorrean aldaketa askorik suposatzen, baina bai onartzen du:

- EKINTZA PLANEAN KONTUAN HARTU GABEKO EKINTZAK identifikatzea, hauek burutzen ari dira eta planarekin koherenteak dira.
- BIRFORMULATU daitezkeen ekintzak identifikatzea, ekintza hauek burutzen ari dira baina ez du zehazki hasierako definizioa betetzen.
- BIKOIZTUTAKO ekintzak identifikatzea.

Ondoren, **gure Plana eguneratzeko proposamenak** azaltzen dira.

## BIRFORMULATUTAKO EKINTZEN ZERRENDA

---

<b>Ekintza</b>	<b>Epea Lehenetasuna</b>	
2.7.2 FAMILIA INTERBENTZIORAKO PROGRAMA GRATZEA	Laburra	Altua
3.1.3 KULTUR EKINTZETARAKO DESKONTU PROGRAMAK MARTXAN JARTZEA	Luzea	Ertaina
6.2.1 HERRITARREN GAIKAKO PARTAIDETZA FOROAK BERRINDARTU	Laburra	Altua
6.4.2 HERRIKO BALIABIDE NATURALEN GAINEKO ETA ZABALKUNTZA JARDUERAK SUSTATU	Luzea	Altua

## BIKOIZTUTAKO EKINTZEN ZERRENDA

---

<b>Ekintza</b>	<b>Epea Lehenetasuna</b>	
5.3.1 EROSKETA PUBLIKO BERDEA SUSTATU	Ertaina	Altua

## ONARTUTAKO EKINTZA PLANEAN AURREIKUSI GABEKO EKINTZAK ILDOAK, PROGRAMA ETA EKINTZAK

---

**4. HERRIKO BALIABIDE NATURALAK BABESTU, KONTSUMO JASANGARRIA SUSTATU ETA HONDAKIN KUDEAKETA OPTIMIZATU**

**4.5 HIRI HONDAKINAK GUTXITZEKO ETA BIRZIKLATZEKO PROGRAMA**

4.5.4 AUZO-KONPOSTAIA EGITEKO GUNEAK SORTU ETA GAI HONEN INGURUKO SENTZIBILIZAZIOA EGIN



TA21EKO BEHATOKIA  
OBSERVATORIO AL 21  
GIPUZKOA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio